

LUISA ETA MARISAK KONTATUTAKO HAMAIIKA IPUIN IRRI EGITEKO
“Ehunzango baten ipuinak: batzuk kantuz doaz, besteak buruz”

Esku-soinu, tronboi eta perkusiorako kontzertu didaktikoa.

Jatorrizko ideia: Pasadas las 4 A. T.

Gida didaktikoa: Belén Otxotorenak eta Inma Gurreak

Musika:

Arabasque 1 Claude Debussyrena

Gauza bat aurkitu dut Binefarreko titiriteroena

Galtzerdiaren Baltsea Paco Iglesiasena

Zapatariaren abestia Herrikoia

Kamilaren erretaila Gorka Pastorrena

Nire abestia Trilocoena

Peio eta osoa (Peioren melodia) Sergei Prokofievrena

Fitxa artistikoa:

Esku-soinua: Garbiñe Sertutxa

Tronboia: Rubén Velasco

Perkusioa: Txus Eguílaz

Moldatzailea: Gorka Pastor

Jantziak: Javier Sáez

Eszenografia eta argiak: Global

Antzezleak: Virginia Albira eta Patrizia Eneritz

KONTZERTU AURRETIKO AKTIBITATEAK

Galtzerdi tenorrek behar duena esku-soinu, perkusio eta tromboia da
Galtzerdi zikina aireatzera ateraz gero, Tramontana Rosanak aireatuko du agudo
Galtzerdiaren baltsearekin dantzatuko du Maddik
Letrekin jolastea gustatzen bazaizu, “galtzerdi liburutegian” aurki ditzakezu
Lan-galtzerdi honekin, abestuko duzu ixilka ala ozenki
“Galtzerdi matematikoa”: batuketa eta kenketa da magikoa.
Egun batez alderantziz jantzi, zer gertatuko den nork daki!

KONTZERTU ONDORENGO AKTIBITATEAK

Eskolako mantala eta “ibiltzeko galtzerdi”: munduan zehar mugitzeko beharko dituzu beti
Loreak dituen galtzerdi marraduna, min gutxi eta poz handia ematekoa da

Ehunzango baten ipuinak: batzuk kantuz doaz, besteak buruz Haur Hezkuntzako ikasleak modu dibertigarri batez musikara hurbiltzen saiatzen den kontzertu didaktikoa da.

Luisa (Belén Otxotorena) eta Marisa (Inma Gurrea) izugarri pozik daude proiektu berri honekin. Beraientzat MUSIKA EKINTZAN programan parte hartzea benetako ohorea da, zuzeneko musikaz inoiz baino gehiago gozatuko dutelako.

Beraiek antzerki mundutik datoz eta, dakizuenez, antzerkia entretenimendu bat izateaz gain ikaskuntza modu liluragarria da. Antzerkian lengoia guztiak batzen dira: ahozkoa, keinuena, gorputzarena...

Bada, antzerki arloan **ipuinak** pedagogi eta hezkuntz gaitasun izugarria dauka. Gainera literaturako edertasun, gozamen, sormenaren garapen eta sentiberatasunaz gain, besteak beste, ipuina ere premiazkoa da haurren ikaskuntza prozesuan.

Ipuinaren kultura pentsamendu, sormen eta ustekabeko erantzunen askatasuna aldarrikatzen duen kultura da, ordenagailuei eta telebistari aukera umoretsu eta samur bat ematen diena.

Horregatik Luisa eta Marisak hurrei ipuinak kontatzen dizkiete. Hurrek oraindik begiak harridurarako prest eta belarriak entzuteko prest dauzkate eta.

Ipuinak entzuteko asmatzen dira eta, azken beltzean, irakurtzeko.

Machadok esan zuenez:

*Hasta que alguien los cuenta
los cuentos son lo que son.
Y cuando alguien los cuenta
ya nadie sabe el autor.*

TALDEA:

Pasadas las 4 antzerki taldea 1994an sortu zen eta, orduetik hona, bai helduentzako antzerkia bai haurrentzako antzerkia egin dute. Azkenaldian Belén eta Inma erosoago sentitzen dira kontu kontalari saioetan.

Kontukontalari saioak prestatzen ari direnean norbaitek beraien etxeko leihotik begiratzen badie, atlas eta hiztegiren orrialde, bertso burugaberen lelo, ordenadore kontrolezin baten soinu... edo kafe eta galleten usaina adituko ditu. Baina, batez ere, irri asko, barre-algara pilo bat entzunen du.

Haurrek haiek bezain ongi pasatzeko asmoz, **beraien ipuinak musikaren esanetara** jarri nahi dituzte, **musika benetako protagonista izan dadin**.

ARGUMENTUA:

Negu eta hotzaren erdian, *Luisa eta Marisa* basora txangoz joaten dira eta hor opari-kutxa bat aurkitzen dute. Baina... mmm, lastima! jabea ez da agertzen. Orduan, maileguz hartzea erabakitzen dute. Une batez bakarrik! Baina, zer dago kutxaren barruan? Ba... Tramontana Rosanak, haize airatu batek, bere lagun ehunzangoari oparitu nahi dion galtzerdi mordo bat. Eta, gainera, ohar hau:

Ehunzango maitea:

Negu hotza da eta

ezin zara hoztu

ezta ere gaixotu.

Bidaltzen dizkizudan galtzerdiak

koloredunak dira ta eskuz eginak.

*Jantzi baino lehen, barruan begira
agian aurkituko duzu ipuin eder bat.*

Batzuk kantuz doaz, besteak buruz.

Ehunen bat daude, zenbatu kontuz.

Gau hotzetarako irriak dituzu,

eta triste bazaude... intxaurrak jan itzazu!

Besarkada bero bat eta muxu handi bat

Galtzerdiak ateratzerakoan, batzuetatik istorio magikoak eta beste batzuetatik melodia eta abesti miragarriak ateratzen direla egiaztatzen dute. Horrela orduak doaz... etxera itzultzeko unea ailegatu arte. Lastima! Orduan, galtzerdiak berriro kutxan gordetzen dituzte eta aurkitu zituzten lekura itzultzen dituzte.

Aizue, begira! hor galtzerdi mordo bat dago! Barruan dagoena ikusi nahi duzue?

KONTZERTU AURRETIKO AKTIBITATEAK

**Galtzerdi tenorrek behar duena
esku-soinu, perkusio eta tromboia da**



Ba al dakizue “Galtzerdi tenorrek” primeran abesten duela? Bakarrik musikari onenekin dabil, eta bere ahots miragarriaz lagunduta izatea merezi duten artistak, soilik hautatzen ditu.

Dirudienez, kontzertuan joko duten musikariek ohore hau merezi dute:

- Garbiñe, esku-soinujolea eta Noingo Musika Eskolako zuzendaria.
- Rubén, tronboijolea eta Huescako Kontserbatorio Profesionalaren irakaslea.
- Txus perkusiojolea, kontzertu eta txantxa musikaletan aditua da.

Baina, haietaz gain, joko diren musika-lanen moldatzailea den Gorka dugu, pianojole eta musikaegilea. Talde hau: esku-soinua, tronboia eta perkusioa ez da batere ohizkoa. Horregatik beraien lana ezinbestekoa izan da denontzat. Gainera, esku-soinuak lehenbiziko aldiz parte hartuko du MUSIKA EKINTZAN. Asko itxaron dugu, baina bere ahalmen guztiak erakusteko prest dator.

Musikari bakoitzak kontatzeko istorio bat dauka eta “galtzerdi tenorrek” abesten egitea proposatu die.

TXUS:

Ni txikitxoia nintzanean,
danborra oparitu zidaten,
gogor eta indarrez jotzen nuen hasieran.
Beranduago irakasle batek
pazientzia eta gogo onez
erakutsi zidan danborra xamurki jotzen.



GARBIÑE:

Nik akordeoia aukeratu nuen,
kementsu aritzen nintzen,
zenbat tekla eta botoi, hura emozioa!
Denbora pasa zen, eta irakasle batek
pazientziaz erakutsi zidan
hauspoari suabe eta goxo eragiten.



RUBÉN:

Gazte eder eta lirain honi
tronboia eman zioten eskuetara.
Haren soinua euliaren hegaldiarena bezalakoa zen.
Baina egun batean irakasle batek
soinu hura pazientziaz landuz
izarren doinu bihurtzen erakutsi zion.



Oraingoz ezin dugu entzun, "galtzerdi tenorrarekin" egun osoan entsaiatzen ari dira eta. Baina, horren bitartean, kontzertu egunean laguntzeko segida erritmiko txiki bat ikas dezakezue.

Mi Canción

♩ = 130 Los Trilocos

Estróbilo
rítmico

Ran pan pa ta pa ta pan pan pan ran pan pa ta pa ta pan


Palmadas
niños/as

ran pan ran pan ran pan pa ta pa ta pan

Transcripción Garbiñe Sertutxa

Oso garrantzitsua da ongi ikatea, badakizue "galtzerdi tenorra" oso zorrotza dela... Aupa! Ziur aski primeran eginen duzue!

Galtzerdi zikina
aireatzera ateraz gero,
Tramontana Rosanak
aireatuko du agudo



Zuen irakasleak adieraziko dizuenez (1. ERANSKINA), Luisa eta Marisak errimatzeko Rosana deitu dioten Tramontana hori, Ipar-haizea da. Luisa eta Marisari edozein gauzari izena ematea izugarri gustatzen zaie.

Tramontanak "menditik harantz" esan nahi du, baina Menorcan oso esanahi berezia hartzen du. Esaten dutenez, tramontana (ipar-haizea) "seny" eta "rauxa"ren arduradun nagusia da. Bi hauek sen on eta fantasiarekin lotutako izaera-ezaugarriak dira.

Bada, sen ona eta batez ere fantasia gure ikastetxeko gelan mugarik gabe haz dadila nahi dugu.

Dakizuenez, haizeak soinu asko eragiten du: inork oztopatu gabe aske dabilenean egiten duena, zuhaitzen adarren artetik sartzen denean, kainaberen artean txistu egiten duenean...

Zer iruditzen zaizue haizearen soinua imitatzeke ahotsarekin jolastea?

Zuen ahotsaren soinu-gaitasunak aztertu beharko dituzue, zeuek egun batez haize bihurtzeko.

Izan daitezkeen modu guztiekin saiakuntzak egin ondoren, soinu-efektu interesgarriagoak lortzeko objektu txiki batzuk erabil ditzakezue: paper-orriak, eskuz igurtzitako margoen kutxak, lurretik herrestatzen diren aulkiak...

Musika-tresnaren bat baduzue dudarik gabe erabil ezazue, txirula batzuen soinua haizearen soinuaren parekoa da.

Gure kontzertuan txirularik ez dago baina metalezko haize-tresna harrigarri bat badugu: tromboia.

Kontzertu egunean tronboiak ezusteko soinua egiteko gai dela ikusiko duzue.

Komenigarria da, ariketa osatzeko, tromboierako idatzitako musikalanaren bat entzutea:

Hemen duzue proposamen batzuk:

- Ferdinan David-en *Tromboi eta orkestrarako Kontzertinoa*
- Gröndall-en *Tronboi eta orkestrarako Kontzertinoa*
- Rimsky Korsakov-en *Tronboi eta orkestrarako Kontzertinoa*

Galtzerdiaren baltsearekin **dantzatuko du Maddik**



Luisa eta Marisak ez dakite zuen gelan Maddiren bat dagoen ala ez, eta izatekotan... ba al daki baltsea dantzatzen?

Badakitena baltsea dantzatzeko oso galtzerdi sofistikatua jantzi behar dela da. Holako galtzerdi bat: perlezkoa, harizkoa, parpailaduna... Hau da, armairuan duzuen delikatuen eta dotoreena.

Baltsea betiko dantzarik ospetsuenetariko bat da. Musika-kutxetan dantza egiten duten panpinek beti baltsea dantzatzen dute, ipuinetako printzesek beti baltsea dantzatzen dute, Vienako aretoetan beti baltsea dantzatzen zen... Hori da urte pilo, hori!

Baltsearen erritmoa konpas hirutarrean oinarrituta dago, *1, 2, 3 edo pun txan txan* ezaguna dena.

Nahiz eta batzuek zuek txikiak kontsideratu, ez kezkatu, **inoiz ez da goizegi dantzatzen ikasteko**, alderantziz, etorkizun dibertigarri bat izateko derrigorrezkoa da.

Zuen irakasleak baltsea dantzatzen ez jakitea oso gauza arraroa izanen litzateke. Horregatik, bere laguntzarekin, zuen lehenbiziko pausoak ematen ikasteko proposatzen dizuegu. Horrela, kontzertu egunean *Galtzerdiaren baltsearen* konpasez dantzatu ahalko duzue.

Baltse honen melodia oraindik aurkeztu nahi ez dugun sorpresa da. Dena den, Musikaren Historian zehar erabil dezakezuen baltse ospetsu pilo bat dago.

Hemen duzue adibideren batzuk:

PIOTR CHAIKOVSKI

- *Beltxargen Aintzira*, Baletako Suite op.20 - Baltsea
- *Kraskagailua*, Suite op.71 a – Loreen Baltsea

FRÉDÉRIC CHOPIN

- do sostenitu maiorreko 7. Baltsea, op. 64. 2. zbk
- re bemol maiorreko Pianorako Baltsea op. 1

HECTOR BERLIOZ

- *Sinfonia Fantastikoa* op.14, 2. mugimendua (Baltsea, Allegro non troppo)

**Letrekin jolastea gustatzen bazaizu,
"galtzerdi liburutegian" aurki ditzakezu.**



Ikusi al duzue zein intelektual-itxura duen galtzerdi horrek? Benetan galtzerdia baino liburutegi-sagu bat ematen du.

Luisa eta Marisa askotan liburutegietara joaten dira, hurrei ipuinak kontatzera... eta liburuz betetako leku hauek izugarri gustatzen zaizkie.

Astearte eguzkitsu batean asmakizun hau aurkitu zuten:

Tipitaki, tapataki,
Zer ote den nork daki?
Oinetakoak janzten izaten du lana
zapatak konpontzen ematen du eguna,
ez da irakasle, ezta zapatari
baina ehun arte zenbatzen badaki!

(Ehunzangoa)

Asmatu al duzue?

Ikusten duzuen bezala, liburutegia leku zoragarria da. Astearte ekaiztsu batean, Luisa eta Marisak 2. ERANSKINean agertzen den ipuina aurkitu zuten. *Ravileseko Ehunzango* deitzen da eta gure istorioko ehunzangora ez itxuratu arren...

Hara, baina zuek ez dakizue irakurtzen! Ez du inporta, irakasleari **ozenki irakurtzeko** eskatu eta horrela istorioa denek ezagutuko duzue.

Hala eta guztiz ere, txoritxo batek esan digu zuen arteko batzuk irakurtzen eta idazten ikasten ari zaretela eta beste batzuek zuen lehenbiziko trazuak egin dituzuela.

Bada, gure lagun ehunzangoak hain interesgarria den lanean lagundu nahi dizue eta 3. ERANSKINeko marrazkia oparitu digu, denek **letrekin jolasteko**:

- zuen izena idatz dezakezue, letra bat zirkulu bakoitzean.
- eskala musikalaren notak ere jar ditzakezue, gero nahastu eta musikagile bihurtu. Sortutako melodiak teklatu edo xilofono arrunt batez joko dituzue, horrela haur bakoitzak bere konposaketaren emaitza entzunen du.
- hautaketa baten bidez ehunzangoari izen barregarri bat jar diezaiokezue, zirkuluetan idatzi eta gero letrak nahastu.
- zaharrenek letra hauekin osa daitezkeen beste hitz batzuk bila ditzakezue baita biko errimatuak ere egin ditzakezue.

Luisa eta Marisa letrekin jolasten hasi ziren eta Ipar-haizeko astearte batean, olerki hau asmatu zuten.

Ea zuen gustokoa den:

**Tipi-tapa ehunzangoa bazihoan azokara.
Bidean Mikela eulia aurkitu zuen, arras nekatuta.
Eulitxoak nahasturik so egin zion oinetara.
Bi aldiz pentsatu gabe esan zuen, harrituta:**

*- Zenbat zango, hainbeste oinetako.
Zenbat oinetako, horrenbeste korapilo.
Aizu, ehunzango!
Nola lotzen dituzu hainbeste zapatatxo?
Nola egiten duzu zuk ibiltzeko?
Lehenengo ezkerreko zangoa eta gero eskuinekoa?
Edo lehenengo alde batekoak eta gero ondokoak?*

**Euliaren hitzak entzunda, ehunzangoa
pentsatzen jarri zen galdetutakoa.
Saiatu zen asmatzen ehun oinen jokoa,
lortu zuen bakarra hanka-korapiloa.**

**Zango pare bat hegoaldera begira,
atzeko hoge eta hamarrak jo ta fuego dantzan,
gainontzeko guztiak saltoka ilargira,
eta ehunzango gaixoa hankaz gora bidean.**

“Galtzerdi liburutegia”ren aktibitatea bukatzeko 3. ERANSKINeko marrazkia handitu daiteke, denek batera koloreztatu, arbelan eseki eta hurrek animalia honi buruz zer dakiten eta zer nahi duten jakin eztabaidatu ezazue.

Interesgarria izanen litzateke **liburutegia bisitatzera** joatea, ehunzangoari buruzko liburuen bila, eta errituala urratsez urrats jarraitu: ixilik egon, ordenagailuan liburuaren izena idatzi, apaletan bilatu...

Liburutegira joatea haurrak irakurketara gonbidatzeko beste modu bat da. Hau da edozein irakaslearen helburu garrantzitsuenetariko bat. 4. ERANSKINEAN Gustavo Martín Garzok egindako oso hausnarketa interesgarria den artikulu bat duzue.

Lan-galtzerdi honekin, abestuko duzu ixilka ala ozenki



Lan-galtzerdiak oso iraunkorrak dira, lanaldi batean ordu asko ematen direlako.

Zure gustoko lana aukeratzen baduzu orduak arin pasatzen dira eta, lan egiteaz gain ongi pasatu nahi baduzu, emaitza izugarria izan daiteke.

Hau da, hain zuzen ere, iratxo kantari batek gure ipuin baten zapatarri batekin lortzen duena.

Kontzertu egunean ikusiko duzue, zapatarria zahartu egin da eta egiten dituen zapatak ez zaizkio oso ongi ateratzen: bat handiegia bat, bestea txikiegia, bat zuzena, bestea alderantziz... Deskalabru hutsa!

Hala eta guztiz ere, iratxo baten abesti magikoari esker, zapata miragarriak egitea lortuko du.

Zapatarriarena besterik ez den abestia da, baina iratxo kantariak zuei ere erakusteko baimena eman digu.

Bai, bai. **Abesteko unea heldu da!**

Oso abesti erraza da. Hemen duzue partitura:

Zapatari

Herrikoia

$\text{♩} = 100$

Za pa ta txo jos ten ta jos ten lu za tu eran tsi pan pan pan, za pa
ta bi be ri ak kon pon du_a men ba ti an za pa
ta bi be ri ak kon pon du_a men ba ti an.

Transkripzioa Garbifite Sertutxa

Dirudienez, zapatak josten diren bitartean abestea zailena da. Nahi ba duzue, abestu melodia jostunaren mugimenduak egiten dituzuen bitartean.

Luisa eta Marisarekin kontzertu egunean abestu nahi baduzue... gauza harrigarriak gertatuko dira.

Ziur aski zuen gelan melodia laguntzeko perkusio txikiko tresnak aurki ditzakezue.

**“Galtzerdi matematikoa”:
batuketa eta kenketa da magikoa.**



Kontatu dugunez, Luisa eta Marisak basoan aurkitutako oparia galtzerdiz beteta dago. Baina, zenbat galtzerdi dago kutxan? Gutxi, asko, hogeita hamar, ehun?

Inork ez daki oraindik.

Baina hasteko, **zergatik ez dugu denon artean ehunzango bat egiten?**

Gelan dauden gauza biribil guztiak bilatu eta bat bestearen atzean kokatu, ehunzangoaren uztaiak balira bezala kokatu.

Zenbat "uztai" lortu duzue?

Ziur aski, aurkitutako objektuak tamaina desberdinetakoak dira, beraz ordena ditzakezue: handienetik txikienera, txikienetik handienera...

Irrikitan gelditzen bazarete, gelan lantzen ari zareten irudi geometrikoekin gauza bera egin dezakezue: laukiak, hirukiak...

Forma desberdinak ere konbina ditzakezue eta birziklatze materiala erabili: komuneko paperreko kartoiak, hamaiketakoetan sobratzen den aluminio-paperaren bolatxoak... Horrela ehunzango harrigarri bat lortuko duzue.

Beste aukera bat: irakasleak **gomet-segida bat** erakutsiko dizue eta zuek nahi duzuen bezainbeste aldiz errepika dezakezue.

Ba al dakizue 2.500 ehunzango mota baino gehiago dagoela? Batzuk oso luzeak dira eta 170 hanka-pare ere izan ditzakete. Zenbat eta gehiago jan gero eta uztai gehiago izango du ehunzangoak.

3. ERANSKINean ezagutu zenuten ehunzangoak hosto pilo bat jan duela iruditzen zaigu. Hortaz, (?) uztai eta, beraz, (?) hanka dauka.

Kontatzera ausartzen zarete?

Baina, agian, ehunzangoak ez du ezer jatekorik. Orduan, uztai batzuk eta, jakina, hankak galduko ditu. Zenbatu itzazu berriro!

Bukatzeko, 3. ERANSKINeko ehunzangoa landutako motibo geometrikoekin apaindu dezakezue eta, ondoren, bere "uztaiak" ebaki edo pikatu.

Baina... kontuz! Bukatu ondoren, ipar-haizeak indarrez joko du (izugarri gustatzen zaio bidean zehar aurkitzen dituen paper-puskak nahastea). Zuen "uztai geometrikoak" airean hegaldatzea eta guztiz nahastea lortu arte ez da geldituko.


Berak ez dakiena zuek **zuen "uztaiak" berrezagutzeko eta berriro ordenatzeko** gai zaretela da. Irakasleak atzerako kontaketa egiten duen bitartean egin behar duzue: hamabostetik, hamarretik, bostetik...

Nahi baduzue, "munduko ehunzangorik luzeena" osatzeko "uztai" guztiak lotu ditzakezue.

Orain jada entrenatuta zaude, beraz **kontzertu egunean**, egiaren ordua helduko da. "Buruz" edo "alderantzizko" ipuinetako batean *Kamila zebraren* malkoak, zazpitik atzera zenbatzeko zuen laguntza beharko dugu. Bazen behin zebra bat... beno, hori ez dugu kontatu behar orain!

Zein barregarria! Zenbat aukera!

**Egun batez alderantziz jantzi,
zer gertatuko den nork daki!**




Atzekoz Aurrera herrialdean, kontzertu egunean ezagutuko dugun herrialdea, dena alderantziz egiten da:

**Bazela eta ez zela, Atzekoz Aurrera izeneko herrialdea,
hartzak erabat txikitxo eta inurriak erraldoi ziren bertan.
Arrainek hegan egiten zuten eta uretan bizi ziren erleak.**

**Atzekoz Aurrera izeneko herrialde harrigarrian
eguzkiak argiz betetzen zuen gau luzea,
eta egunez zeruko erregina izaten zen ilargia.**

**Sinets ezazue, atzekoz Aurrera izeneko herrialdean
gurasoek biberioia eta txupetea zituzten ahoan,
eta haurrak aritzen ziren irakasle eta mediku lanean.**

Begira Helga Banschek, *Egunik onenak* liburuaren irudigileak, alderantzizko egun bat nola imajinatu zuen:



Zuek ere alderantzizko mundu bat asma dezakezue edo nahiago baduzue, hasteko, alderantzizko ikastetxea: mahaiak hankaz gora, irakaslea zure ikasmahaian eserita eta hamaiketakorako... zein gozoa dagoen aluminio-papera!

Idea-zaparrada bat egin dezakezue, premisa honekin: nola izanen litzateke zuen gela alderantziz?

Gero, Debussyren *Arabesque 1* entzun. Kontzertuan gozatuko dugun Claude Debussyk egindako musika-lan irudikorra entzuten duzuen bitartean, ikasle bakoitzak **bere gelaren marrazki bat egin behar du** baina, kontuz! Dena alderantziz!

Zaharrenek Atzekoz Aurrera Herrialdeari buruz irakurritako bertsoetan oinarritutako **olerkiren bat asmatu dezakete**.

KONTZERTU ONDORENGO AKTIBITATEAK

**Eskolako mantala
eta “ibiltzeko galtzerdi”:
munduan zehar mugitzeko
beharko dituzu beti**



Munduan zehar ibili!!!! Bai zirraragarria!!

Dakizuenez, Luisa eta Marisari bidaiatzea asko gustatzen zaie eta une zoragarri hauetarako, ez dituzte inoiz ahazten beraien ibiltzeko galtzerdiak, errekan sartzeko balio duten galtzerdi martxosoak, aldazkatik aldazkara jauzi egiteko, mendi garaiak igotzeko eta... itzulipurdi batez, Plutonon lurreratzeko ere.

Dena segurtasun osoarekin eta zerbitzu guztiekin.

Gogoratu, kontzertu egunean basora txangoz joan ziren eta hor abentura sinestezin batzuk bizi zituzten. Hala eta guztiz ere, gaur abenturako protagonistak zuek izanen zarete.

Zuzendutako dramatizazioa egitea proposatzen dizuegu. Bertan, motxilaz gain, bost zentzumenak ere paseatzera aterako ditugu. Modu honetan, bai txango batean agertzen ohi diren emozio ugariak, bai sentrazio fisikoak ere esperimendatuko ditugu.

Gezurra badirudi ere, hau dena egin daiteke gelatik atera gabe. Bakarrik espirtu abenturazale apur bat (irudimena), jantzi egokia (eskolako mantala) eta barrutia ongi ezagutzen duen gidaria (irakaslea) behar da.

Zuen irudimenari buruzko zalantzarik ez dugu, ezta zuen irakasleari buruz ere... Baina, gogoratu ezazue, eskolako mantala edozein gauza bihurtu daiteke eta, beraz, mila gisaz erabil dezakegu.

Nahi baduzue, tamaina desberdinetako makilak eta oihalak ezinbesteko laguntza izanen lirateke txangoa arrakastatsua izateko.

Luisa eta Marisak Prokofievaren *Peio eta otsoa*-ren “Peioren Melodia”-z lagundu zuten txangoa. Zuek ere erabil dezakezue, ziur aski musikak dramatizazioa aberastuko du eta haurrengan beste ekintza batzuk eraginen ditu.

Atera baino lehen, irakasleak bidaia-gida txiki hau kontsultatu behar du.

Dramatizazio dibertigarri baterako Gida:

- Prestaketak (norberaren garbitasuna, ogitartekoak prestatu, eltxoen kontrako krema jarri...)
- Sentsazio fisikoak (lur malkartsuak, ezusteko eguraldia, usain bereziak, glaziar ikaragarriak, fauna ugaria, landaretza inguratzailea...)
- Emozioak (alaitasuna, arriskuaren gustua, bertigoa, esfortzu-gaitasuna, kidetasuna, ausardia...)

Eta bat-batean gaua iristen ba da? Orduan, aukera mordo bat agertzen da (iluntasunaren eta ezezagunaren beldurra, gaueko zaratak, sua, izar iheskorrak, kontu-kontaketa...)

Prest zaudete? Aurrera!

Loreak dituen galtzerdi marraduna, min gutxi eta poz handia ematekoa da



Ikusi duzueenez, Luisa eta Marisaren sekretu handia galtzerdiak dira.

Bere jantzietan galtzerdiek beti lehentasunezko tokia dute; ia beti marradunak dira, batzuetan lorehunak, lepoan ere eraman ditzakete.

Galtzerdiak oinetan jartzeko baino gauza gehiagorako balio dute eta.

Luisa eta Marisa galtzerdien papera protagonista izatea ez dela ohikoa konturatu ziren. Orokorrean bota, zapata eta zapatilen barruan doaz... eta ia beti praka, txandal edo gonarekin estalita.

Hala eta guztiz ere, beraienzat, galtzerdiek garrantzi handia dute eta beraien jantzien artean ezinbesteko tokia daukate.

Kultur batzuen esanez, gorputzaren puntu garrantzitsu guztiak oinetan irudikatuta daude. Gainera, haien estimulazioak ere gaixotasunak sendatzeko balio du.

Horregatik, Luisa eta Marisak beraien oinak asko zaintzen dituzte. Eta bere moduan egiten dute, beti galtzerdi dibertigarriak aukeratuz: marradunak, lorehunak... galtzerdi alai eta magiaz blai!

Ba al dakizue nor den Luisa eta Marisa janzteko arduraduna? Javier Sáez: eszenografo, figurinista eta laguna.

Berak Luisa eta Marisak basoan bizi izan zuten abenturarako jantziak diseinatu zituen. Baina zuek beste modu batez jantzi ditzakezue eta abentura berriak asmatu.

5. ERANSKINean, silueta zuriak aurkituko dituzue. Pikatu edo ebaki ditzakezue eta, ondoren, beraien armairu fondoa diseinatu: bainu-jantzia, txandala, bufanda... Kontuz! Ez ahaztu galtzerdiak!

Gero, marrazkiaren atzetik makiltxo bat kokatu eta... tatxan!!!


Luisa eta Marisaren txotxongiloak!

Txotxongiloekin irudimenari eta jokuari mundu bat irekitzen zaie.

Haiei esker, kontzertuan ikusitakoa berregin dezakezue, Luisa eta Marisa bidaiatzeko leku berriak bilatu, istorio berriak asmatu, gatazka txikiak...

Interesgarria izanen litzateke gune magiko hauek musikaz laguntzea edo, alderantziz, musika izatea leku asmatu hauetara ikasleak eramateko garraioa.

1. ERANSKINA



Tramontana da, *Diccionario de la Real Academia Española* delakoaren esanez, «*el Norte o Septentrión y el viento que sopla de esta parte*». Hau da, Ipar-haizea. Gainera, agertzen den beste esanahi figuratu batean da «*altivez, vanidad, soberbia o pompa*». Hau da, "harrokeria, hantuste, handikeria, oilarkeria". Badago beste esamolde bat: «*perder la tramontana*» (gure lurraldean gutxi ezagutzen dena). Bere esanahia «*perder el Norte*» da, hau da "nor bere senetik atera, nor bere onetik atera".

Hitzaren etimologia italieratik dator eta *Colon-en egunkaria-n* (1502) lehen aldiz agertzen zen.

Tramontana, Alpeetako mendietatik harantz jotzen duen haizea adierazten duen itxas-termino genoarra, gaztelerara berandu heldu zen. Ez ordea katalanera, Pirinioetako haizea izendatzeko erabiltzen duena, ezta frantsesera ere, XIII. eta XIV. mendeetan jada agertzen delako.

Hala eta guztiz ere, Tramontana hitzak hiztegian agertzen ez den beste adiera bat badauka, bai gazteleraz, bai katalanez eta bai frantsesez ere: iparrizarra.

Katalunian, antzinan, haize eta izarraren esanahiak izan zituen. Bitxiki, tramontana iparrizarra bezalako lehenbiziko agerpen idatzia gazteleraz, Lope de Vegak XVII. mendean idatzitako Ama Birjinari laguntza eskatze bat izan zen:

*Virgen del mar, estrella tramontana,
hermosa más que el sol...*

Tramontana galtzea, beraz, Iparrizarraren gida galtzea da, Kataluniako atsotitzan ikusten den bezala: «*Perdre la tramuntana de vista*». Gaur esamoldea hiltzeko zorian dago gazteleraz eta katalaneraz, baina ez frantsesez. Georges Brassens olerkariak oraindik abesten du:

*J'ai perdu la tramontane
en perdant Margot...*

2. ERANSKINA

Ravileseko ehunzangoa

Ravileseko ehunzangoa inurritegi baten ondoan zoriontsu bizi zen. Bere ehun zangotxoak lumak bezain arinak ziren, horregatik bere zaletasuna dantzatzea zen. Basoko animalia guztiek inbidia zioten kolorezko botin ederrak janzen zituelako.

Goizero inurritegiaren gainean igotzen zen eta takoiz jotzen hasten zen:

-Hemen dago, hoberena, dantzaririk handiena !

Baina inurrientzat hainbeste oin inurritegiko sabaiaren gainean burrunbaka entzutea oso nekagarria zen. Inurriak, izaturik, zer gertatzen zen ikustera atera ziren eta hor abesten jarraitzen zuen ehunzangoa aurkitu zuten:

-Hemen dago, hoberena, dantzaririk handiena!

-Berriro! Ezin dugu lanik egin! Ezin al zara beste leku batera joan!?- esan zuen Inurri Erreginak.

-Oraintxe bertan! Ba noa! Dirudienez, jende guztia ez da artista bat ezagutzeko gai.

Ravileseko ehunzangoa satorraren etxera joan zen, atearen ondoan jarri zen eta abesten eta takoiz jotzen hasi zen:

-Hemen dago, hoberena, dantzaririk handiena!

-Itsua naiz, baina ez gorra! Ezin dut lorik egin! Ezin al zara beste leku batera joan? – esan zuen satorrak haserretuta.

-Oraintxe bertan! Ba noa! Dirudienez, jende guztia ez da artista bat ezagutzeko gai. – errepikatu zuen ehunzangoak.

Baina Ravileseko ehunzangoa goibeltzen hasi zen. Zirudienez alde guztietan eragozten zuten, beraz, jarraian, bere mailetak hartu zituen eta hortik urrutira joan zen.

Ibili eta ibili igaro ziren orduak ilundu arte, eta atseden hartu beste biderik ez zuen. Segundo batean lo sakonak hartu zuen.

Biharamunean, bere botinak bezalako kolorezko lorez betetako zelai eder batean zegoela konturatu zen.

-Hau nire etxe berria izanen da! - oihukatu zuen Ravileseko ehunzangoak.

Hain pozik zegoenez, ez zen konturatu bele beltz handi batek zuhaitz baten adarretik arretaz begiratzen ziola. Ravileseko ehunzangoa, poz-pez, takoiz jotzen hasi zen hain gogor, hain indartsu, hainbeste oldarrez, zarata jasan ezin zuen bele gaizto hark eraso egin ziola. Bere moko erraldoia ireki eta erreakzionatzeko astirik gabe harrapatu zuen.


Hortik pasa zen ehiztari batek laguntza eskatzeko oihuak entzun zituen, tiro egin zuen airera eta beleak, izaturik, ehunzangoa askatu zuen. Lurrean zegoena, Ravileseko ehunzangoak, beldurrarengatik takoiz jotzen eta abesten hasi zen:

-Hemen dago, hoberena, dantzaririk handiena!

Ehiztariari ehunzangoaren takoiz jotzea asko gustatu zitzaion. Horregatik bere ehiztari-lana utzi zuen eta **Munduko Zirko Txikia** sortu zuen, mundu osoko ehunzangoek beraien trebetasunak erakusten zituzten zirko bat.

Eta horrela Ravileseko ehunzangoak bere artista-gaitasunak erakutsi zituen gehien gustatzen zitzaiona egiten: abestea eta dantzatzea.

3. ERANSKINA



4. ERANSKINA

INSTRUCCIONES PARA ENSEÑAR A LEER A UN NIÑO

2003ko apirilaren 17an ABC egunkariko Blanco y Negro Cultural gehigarrian argitaraturiko artikulua

Conviene empezar cuanto antes, a ser posible en la habitación misma de la clínica de maternidad, ya que es aconsejable que el futuro lector esté desde que nace rodeado de palabras. No importa que, en esos primeros momentos, no las pueda entender, con tal de que formen parte de ese mundo de onomatopeyas, exclamaciones y susurros que le une a su madre y que tiene que ver con la dicha. Poco a poco irá descubriendo que las palabras, como el canto de los pájaros o las llamadas del celo de los animales, no son sólo manifestación de existencia sino que nos permiten relacionarnos con lo ausente. Así, muy pronto, si su madre no está a su lado echará mano de ellas para recuperarla en su pensamiento, o si vive en un pueblo rodeado de montañas les pedirá que le digan cómo es el mundo que le aguarda más allá de esas montañas y del que no sabe nada.

Palabras del día y de la noche.

Por eso los adultos deben contarle cuentos, y sobre todo, leérselos. Es importante que el futuro lector aprenda a relacionar desde el principio el mundo de la oralidad y el de la escritura. Que descubra que la escritura es la memoria de las palabras, y que los libros son algo así como esas despensas donde se guarda todo cuanto de gustoso e indefinible hay a nuestro alrededor, ese lugar donde uno puede acudir por las noches, mientras todos duermen, a tomar lo que necesita. A estas alturas habrá hecho un descubrimiento esencial, que existen palabras del día y palabras de la noche. Las palabras del día tienen que ver con lo que somos, con nuestra razón, nuestras obligaciones y nuestra respetabilidad; las de la noche con la intimidad, con el mundo de nuestros deseos y nuestros sueños. Y ése es un mundo que necesariamente se relaciona con el secreto. Por eso, el adulto no debe hablar demasiado al niño de los libros, ni abrumarle con consejos acerca de lo importante que es leer, porque entonces éste desconfiará. La madre que guarda en la despensa los dulces que acaba de preparar, no lo proclama a los cuatro vientos, y así los vuelve más codiciables. Las palabras de la

literatura tienen que ver con ese silencio, con lo que se guarda y tal vez hay que robar, nunca con lo que nos ofrecen a gritos, y mucho menos a la luz del día, donde todos puedan vernos. El futuro lector, en suma, debe ver libros a su alrededor, saber que están ahí y que puede leerlos, pero nunca sentir que es eso lo que todos esperan que haga.

Sería aconsejable, si me apuran, que los padres no los tuvieran demasiado a la vista, sino que los guardaran dentro de grandes armarios, que a ser posible mantendrían cerrados con llave. Aunque de vez en cuando se olvidarían esa llave, o de cerrar esos armarios, dándole al niño la opción de llevarse los libros cuando nadie les viera. Pero lo más importante es que el niño vea a sus padres leer. Discretamente, sin ostentación, pero de una forma arrebatada y absurda. El rubor en las mejillas de una madre joven, mientras permanece absorta en el libro que tiene delante, es la mejor iniciación que ésta puede ofrecer a su niño al mundo de la lectura.

Jardín secreto:

Pero los libros son como aquel jardín secreto del que hablara F. H. Burnett en su célebre novela homónima: No basta con saber que están ahí, sino que hay que encontrar la puerta que nos permite entrar en su interior. Y la llave que abre esa puerta nos tiene que ser entregada azarosamente por alguien. En la novela de F.H. Burnett es un petirrojo quien lo hace, y gracias a ello la niña puede visitar el jardín escondido. El que ese petirrojo tarde en presentarse no quiere decir que no vaya a hacerlo nunca, pero incluso si así fuera tampoco se alarme demasiado, ni por supuesto llegue a pensar que su hijito es un caso perdido. Piense que la lectura no siempre nos hace más sabios, ni más inteligentes, ni siquiera más buenos o compasivos, y que bien pudiera ser que ese niño que adora fuera como los bosquimanos, que tampoco leyeron una sola línea y eso no les impidió concebir algunos de los cuentos más hermosos que se han escuchado jamás. No olvide, en definitiva, que el cuento más necesario, y por el que seremos juzgados, es el que contamos sin darnos cuenta con nuestra vida.

5. ERANSKINA

Luisaren silueta



Marisaren silueta



Bibliografía:

José Cañas, *Didáctica de la expresión dramática*. Octaedro. Barcelona, 1992.

Marisa Núñez/ Oscar Villán. *La cebra Camila*. Kalandraka. Pontevedra, 2001.

Pablo Prestifilippo. *Manual de los calcetines salvajes*. Factoría de libros. Vigo, 2006.

Tappolet, U. *Las marionetas en la educación*. Científico-Médica. Barcelona.

Heinz Janisch/ HelgaBansch, *Los mejores días*. Edelvives. Zaragoza, 2002.

Regino Etxabe. *Adivinancero*. Ajonjolí. Madrid, 2004.

José Antonio Marina. *Teoría de la inteligencia creadora*. Compactos Anagrama. Barcelona, 1993.

Diskografía:

Los Trilocos,

Los titiriteros de Binéfar. *A tapar la calle*. Gelmar TITI-01-CD D.L.Z-1064-99

Papá, cuéntame una. 11666-V Lege gordailua: M-49258-2000

Sergei Prokofiev. *Peio eta otsoa*. Hauts Hizpia Bilduma. Dep. Legal: VI-193/06

Web orrialdeak:

http://www.unizar.es/cce/vjuan/instrucciones_leer.htm

www.primeraescola.com